

Valdespina Jauregia (Udaletxea)

Udalerria:

Ermua.

Tokia:

Valdespinako Markesa kalea, 1.

Bisitak egiteko ordutegia:

8:00etatik 15:00etara.


Hurbil dauden beste toki interesgarri batzuk:

Santiago Apostoluaren eliza.
Valdespinako Markesa Kalea.
Hirigune Zaharra. Ermua.

Lobiano Jauregia.
Goienkale, 8-10. Ermua.

Zarra etxea
Zelaieta kalea. Ermua.

San Andrés eliza.
Eibar (Guipuzkoa).



EUSKARA

BIZKAIKO
ONDARE
HISTORIKOA




Valdespina jauregia

ERMUA



Bizkaiko Foru
Aldundia
Kultura Saila
Ondare Historikoaren
Zerbitzua

Diputación Foral
de Bizkaia
Departamento de Cultura
Servicio de Patrimonio
Histórico





Valdespina jauregia Ermuko hiriaren erdigunean dago, eliza nagusiaren aurrean. Euskal Herrian ditugun etxe barrokoen adibiderik onenetarikoa da, kalitate oneko materialak eta oso diseinu egokia dituelako. Ezaugarriei begiratuz gero, XVIII. mendearen bigarren laurdeneko barrokoan kokatu behar dugu. Garai hartako estiloaren bertsio landua da, apaingarri ugariz hornitua.

Gaur egun ez da etxebizitza, udaletxea baino. Erabilera horretarako atondu zutenean eraikinari elementu batzuk aldatu eta beste batzuk kendu egin zizkioten. Esate baterako, solairu nagusitik orturaino kanpoaldean zegoen eskailera kendu eta ortua lorategi bihurtu zuten.

Jauregi eder hau Valentziako artzapezpikua eta inksidore nagusia izan zen Andrés de Orbe y Larreategui jaunaren babespean eraiki zen. Sebastian de Lecuonari eman zion jauregia eraikitzeko ardura (1729) eta beste hargin batek, Josep de Zuaznabarrek amaitu zuen lana 1759an.

Eraikina

Valdespina jauregia eraikin handia da. Elementu nabarmen hauek ditu: erdiko eskailera, Santiago elizaren kanpandegiarekin aurrez aurre dagoen goiko linternarekin, eta lorategira oparo irekitzen den ekialdeko fatxada.



Atzeko fatxadaren ikuspegia. Jauregia eta Santiagoko parrokiaren arteko elkarriketa.


Eraikineko guneak erdiko baoaren inguruan antolatuta daude. Baoaren helburu nagusia barrualdea argizatzea da -horregatik dago estalita linternan irekitzen den kupulaz- eta horrez gainera, lehenengo solairurako eskailera gisa erabiltzen da.

Eraikinaren lau fatxadetatik kaleari eta elizari begi dagoena da nagusia. Fatxada honetako sarrera erdiko ardatzaren pare dago. Erdikoaren simetrikoak diren beste lau ardatzek saretxoak eratzen dute. Zenbat eta gorago hainbat korapilotsuagoak dira leiho inguruetakoa moldurak, baina hirugarren solairuan frontoi klasikoek zertxobait arintzen dute efektu hori.

Fatxadaren ertz banatan Orbetarren eta Larreateguitarren armariak ageri dira, orbelaz ikusgarriro apainduta. Balkoietako burdina landuek aparteko aipamena merezi dute. Berebizikoak dira, nahiz eta estetika tradizionalaren ereduak izan.

Atzeko fatxada ere ederki taxututa dago, erabilgarritasuna eta estetika uztartuz. Hiru solairuko pantaila polita da, diseinu desberdineko loggiantan banatua. Beheko solairuan hiru bao daude, erdikoan puntu erdiko hiru bao kubo antzeko kapitelen gainean, eta goikoan puntu erdiko beste bao batzuk leihoburu estuagoekin konbinatuta. Leihoburuetakoa apaingarriak plaka orbandunak dira.

Eraikinaren elementu nagusietako bat goiko kupula da. Honen azpian danbor oktogonala dago, erlaitza eteten duten lau okulurekin. Kupula bera borobila da eta tontorrean pinakulua, bola eta haize-orratza ditu. Kupulak eta parrokiaren kanpandegiak antzeko itxura dute eta bata besteari begira daude, pendent orekatua eratzen dutela.



Barroko aroko aparteko forjatuaren adibidea.